



TXAKUR TREBATZAILEEN IKASTAROEI BURUZKO TXOSTENA

274-SUST-2018 LEA/AVC ESPEDIENTEA

Aurkibidea:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK	1
II. GAIAREN AZALPENA ETA TXOSTENAREN HELBURUA.....	3
III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK:	5
A. Araudi aplikagarria	5
B. Kontuan hartzekoak	5
a. Txakur-trebatzaileen araudia. Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia	5
b. Profesionaltasun-ziurtagiriak.....	7
IV. ONDORIOA.....	10

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, bokala
Enara Venturini Álvarez, bokala
Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), arestian adierazitako kideez osatuta, 2018ko irailaren 19an eginiko bileran, txosten hau onartu du txakur-trebatzaileen ikastaroen inguruan.

I. EGITATEZKO AURREKARIAK

2018ko apirilaren 24an, Lehiaren Euskal Agintaritzan (aurrerantzean, LEA), G.F. ZAUNK SLren ordezkari gisa bidalitako mezu elektronikoa sartu zen; horren bidez, «txakur-trebatzaileen ikastaroen sustapen eta lehia desleiala» salatu zuen.

Idatzian, ustezko lehia desleiala deskribatzen da; enpresa batzuek beren web-orrialdeetan Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaroak argitaratzen dituzte. Eusko Jaurlaritzaren logotipoa duten enpresen bost webgune inprimatuta aurkeztu dira; horietan, besteak beste, «Eusko Jaurlaritzaren homologazioa», «Eusko



Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailak aitortua», «Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaroa» adierazpenak ageri dira.

Idatziko adierazpenak behar bezala sistematizatuta ez dauden arren, eta, azken batean, eskaera zehatzik ere egiten ez den arren, hona alderdi esanguratsuenen laburpena:

- Adierazten denez, Estatuko Aldizkari Ofizialak (2014ko uztailaren 19koak) arautzen ditu txakurren oinarrizko trebatzailearen eta hezitzailearen, eta segurtasuneko eta babes zibileko eragiketarako txakur-trebatzailearen lanbideak. Dokumentazioa erantsi da; zehazki, BOEko bi eranskin: III. eranskina, «Profesionaltasun-ziurtagiriaren identifikazioa. Txakurren oinarrizko trebakuntza eta heziketa», eta IV. eranskina, «Profesionaltasun-ziurtagiriaren identifikazioa. Txakurren heziketa, segurtasuneko eta babes zibileko operazioetarako». Eta adierazten duenez,
- EAEn Lanbideak soilik eman ditzake ikastaro horiek, titulazio hori eskuratzeko.
- Eusko Jaurlaritzak duen eskumen bakarra trebatzaile jakin batzuen erregistroa da: hain zuzen ere, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak artatzen edo zaintzen eta hezten dihardutenena. Hala ere, aurrerago ñabardura bat egiten du; Eusko Jaurlaritzak eskumena du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren trebatzaileentzako gaikuntza-ikastaroak arautzeko.
- Eusko Jaurlaritzak instalazioen, langileen eta jarduera-lizentzien gainean ezarritako betekizunak araututa daude IV. eranskineko («Txakurren heziketa segurtasuneko eta babes zibileko operazioetarako») profesionaltasun-ziurtagiria eskuratzeko ematen den ikastaroan.
- «Abeltzaintza Sailaren» praxia okerra da; izan ere, erregistroan sartu izan ditu babeserako eta defentsarako txakurretan prestakuntzarik jaso ez duten eta txakur mota hori inoiz hezi ez duten trebatzaileak.
- Kontu horien guztien berri «Abeltzaintza Sailari» eman zitzaion, baina ez zuen jaramonik egin.
- «Abeltzaintza Sailaren» praxi okerra dela eta, ikastaroen kalitatea okerragotu egin da, ez baitituzte betetzen BOEko araudiaren eskakizunak.
- Eusko Jaurlaritzak arriskutsuak izan daitezkeen txakurren trebatzaileentzat duen erregistroan arlo horretan trebakuntzarik ez duten pertsonak sartzen ari dira.

2018ko maiatzaren 2an, G.F.ren beste mezu bat sartu zen Infocompetencian; mezuari Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren



Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2018ko apirilaren 19ko Ebazpena atxiki zion. Ebazpen horren bidez, «Txakurrei aplikatutako oinarrizko trebakuntza-teknika» prestakuntza-ikastaroa homologatzen da enpresa baten alde.

Mezu horretan G.F.k zioenez, «sail horrek eskumenik izan gabe ere ikastaroak homologatzen ditu, eta enpresek hala argitaratzen dute, eta zaintzarako eta defentsarako txakurren ziurtagiriak emateko, eta prestakuntza- eta zentroetako irizpideak ezartzeko eskumen bakarra Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako SEAD512 prestakuntza-unitateetako batean jasota dago».

II. GAIAREN AZALPENA ETA TXOSTENAREN HELBURUA

Esan bezala, G.F.ren azalpenak nahasi samarrak dira, eta idatziak ez du eskaera zehatzik egiten; hala ere, irakurrita, planteatutako auzi nagusiak ondoriozta daitezke. Hori dela eta, gai horiek LEAren jardun-eremuan kokatu behar dira.

Horrela, bada, lehenengo eta behin zehaztu behar da LEAk, nagusiki, bi eremutan diharduela: alde batetik, lehiaren sustapenean eta, bestetik, lehiaren defentsan. Lehiaren sustapenerako, normalean, txostenak bidaltzen dira¹, eta, lehiaren defentsarako, ordea, LDLren 1., 2. eta 3. artikuluetan deskribatutako arau-hausteetan sar daitezkeen jokabideak dituzten operadore ekonomikoen aurka zehapen-espeditentak izapidetzen dira².

Nahiz eta G.F.k LDLren 3. artikuluekin bat etor litekeen lehiakide zenbaiten lehia desleiala ere aipatzen duen³ (artikulu horrek debekatu egiten du lehia desleiala, betiere interes publikoan eragina badu), salatzaileak planteatzen duen auzi nagusia Eusko Jaurlaritzak ikastaro horiek homologatzeko duen eskuduntzan datza, eta ez Zaunk-en lehiakideek beren webguneetan egiten duten publizitatean. Azken batean, enpresek ikastaroei ematen dieten publizitatea beren jardueraren ondorio logikoa baino ez da.

Bestalde, egiaztatu dugunez, salatzaileak berak ere bere webgunean Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaro baten publizitatea egiten du; bertan, Eusko Jaurlaritzaren logotipoa ageri da, gainerako enpresenetan legez.

¹ Ikusi Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.3. artikulua. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.

² Ikusi Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeko 3.2. artikulua.

³ LDLren 3. artikulua: «Lehiaren Batzorde Nazionala edo autonomia-erkidegoetan eskumena duten organoak izango dira, legeak jokabide debekatueterako ezarritakoaren arabera, lehia desleialeko egintzak aztertuko dituztenak, lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten bazaio».



Adierazitakoari jarraituz, azertu beharreko gai nagusia da Eusko Jaurlaritzako egungo Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan txakur-trebakuntzaren arloan prestakuntza-ikastaroak homologatzen dituen bere eskumen-eremuan ote diharduen eta, ondorioz, homologazio hori Zuzenbidearen araberakoa ote den edo, ordea, txakur-trebakuntzari buruzko ikastaroak homologatzen ari ote diren horretarako eskumenik izan gabe; alegia, G.F.k alegatzen duen bezala, txakur-trebakuntzako ikastaroak eman ahal izateko baliozko titulu bakarrak Lanbidek emandakoak ote diren, kasuan kasuko profesionaltasun-zurtagiria izatea egiaztatzen baitute.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, gure ustez LEAk horretan esku hartzeko, sustapen-txosten hau eman behar du, arautzailearen jardunbideak, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzarenak, lehia murrizten edo faltsutzen duen aztertzeko.



III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

A. Araudi aplikagarria

Jarraian, nagusiki aplikatu beharreko araudia jaso da:

- 50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa⁴. 7. artikulua.
- 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak Edukitzeari buruzkoa⁵. 24. eta 25. artikulua.
- 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen⁶.
- 548/2014 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, bost profesionaltasun-ziurtagiri ezartzen dituen (...). III. eranskina – Profesionaltasun-ziurtagiriaren identifikazioa. Oinarrizko trebakuntza eta txakur-heziketa izendapena eta IV. eranskina, Profesionaltasun-ziurtagiriaren identifikazioa. Txakurren heziketa segurtasuneko eta babes zibileko operazioetarako⁷.

B. Kontuan hartzekoak

a. Txakur-trebakuntzaren araudia. Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoa arautzen duen Legeak (50/1999), 7.2. artikuluan ezartzen du zaintzarako eta babeserako trebakuntza administrazio-agintaritza eskudunak emandako edo homologatutako gaikuntza-ziurtagiria duten trebatzaileek eman beharko dutela.

⁴50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa. 1999ko abenduaren 24ko BOE, 307. zk. Azkeneko aldaketa: 2001eko azaroaren 17a.

⁵101/2004 DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak Edukitzeari buruzkoa. 2004ko uztailaren 9ko EHAA, 130. zk.

⁶34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen. 2008ko urtarrilaren 31ko BOE, 27. zk. Azkeneko aldaketa: 2013ko martxoaren 21a⁶

⁷548/2014 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Segurtasuna eta ingurumena izeneko lanbide-arloari dagozkion bost profesionaltasun-ziurtagiri –profesionaltasun ziurtagirien Estatuko katalogoan sartzekoak– sortzen dituen, eta urriaren 31ko 1531/2011 Errege Dekretuan eta maiatzaren 13ko 686/2011 Errege Dekretuan –abuztuaren 2ko 628/2013 Errege Dekretuz aldatutakoetan– ezarritako profesionaltasun ziurtagiriak –Informatika eta telekomunikazioen lanbide-arlokoak– eguneratzen dituen.



Horren harira, 4. zenbakian xedatzen da gaikuntza-ziurtagiria autonomia-erkidegoetako administrazioek emango dutela eta honako alderdi hauek hartuko direla gogoan:

- a) Aurrekariak eta egiaztatutako esperientzia.
- b) Animalia horiek edukitzeko helburua.
- c) Garbitasuna, osasuna, animalia babsa eta herritarren segurtasuna bermatzeko moduko instalazioak eta egoitzak izatea.
- d) Hezitzaileek baldintza edo titulazio ofizialen araberrako gaitasun egokia izango dute.
- e) Adinez nagusia izatea eta ezintasun-kausarik ez izatea.
- f) Hilketa, zauri, tortura, askatasun sexual eta osasun publikoari loturiko zigor-aurrekaririk ez izatea, ezta talde armatuekin lotura izateagatik edo narkotrafikoagatik ere, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateagatik arau-hausteengatik zigorrik jaso ez izana.
- g) Gaitasun psikologikoko ziurtagiria.
- h) Datuak kudeatu eta ezagutarazteko araudiak betetzeko konpromisoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak animaliak edukitzea ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren bidez arautu du. 24. eta 25. artikuluetan daude araututa txakurrak zaintzarako eta babeserako trebatzeko gaikuntza-ziurtagiriak.

Horrela, bada, 24. artikulua ezartzen du zaintzarako eta babeserako trebakuntza Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako edo homologatutako ziurtagiria duten trebatzaileek emango dutela.

Bestalde, 25. artikulua ikastaroen homologazioa lortzeko bete behar diren baldintzak arautzen ditu, eta 50/1999 Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten du:

«25. artikulua.– Trebatzaileak prestatzeko ikastaroak homologatzea.

1.– Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren trebatzaileak prestatzeko ikastaroak homologatzerakoan, kontuan izango da irakasleen prestakuntza profesionala eta esperientzia, bai eta emandako gaiak ere; Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu tekniko eskudunek esango dute horiek guztiak nahikoa diren ikastaroa homologatu ahal izateko.

2.– Prestakuntza-ikastaroak homologatu nahi dituzten erakunde publiko nahiz pribatuek eskabidea egin beharko dute. Eskabide hori onartu egin dela ulertuko da baldin eta sei hilabeteko epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Erakundeak, homologazio-eskabidearekin batera, prestakuntzako programa espezifikoa ere aurkeztu beharko du. Honako hauek jasoko dira bertan:



- Ikastaroaren memoria.
- Emango den programa, honako hauek zehaztuta: unitate didaktikoak, irakastorduak, zein motako eskola teoriko eta praktikoak izango diren eta zenbateko iraupena izango duten. Eskola praktikoak nukleo zoologikoetan eman ahal izango dira, baina, horretarako, nukleo horiek Nukleo Zoologikoen Erregistroan sartuta egon behar dute.
- Irakasle tituludunen eta esperientziadunen zerrenda.
- Ikastaroa noiz eta zein zentro edo egoitzatan eman zen.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraikiz ikastaro homologatuak antolatzen dituzten erakundeek prestakuntza-ikastaroa egin izanaren egiaztatzea emango diote parte-hartzaile bakoitzari.

Dekretu horren izapidetze-prozesuan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (EABJ) irizpena eman zuen, eta, horren bidez, aitortzen da autonomia-erkidegoak eskumena duela trebakuntza-ikastaroen inguruan. Honako hau zioen⁸:

«Trebakuntza.

Trebakuntzari buruzko bi manuen helburua da 50/1999 Legearen 7. artikuluko mandatua eraginkor egitea.

(...)

Agintaritza eskudunak ematen duen gaikuntza-ziurtagiriak –autonomia-erkidego bakoitzari dagokiona– Estatu osoan izango du baliozkotasuna; izan ere, hala ondorioztatzen da 50/1999 Legearen 7. artikuluan jaso den arauketan, Estatuko eskumenaren arlokoan, eta autonomia-erkidego honek ezingo du eskatu beste eskakizun batzuk egiaztatzea edo proba batzuk gainditzea, ziurtagiri horiek balioztatzeke».

Ikusten denez, Eusko Jaurlaritzaren eskumena berriaz aurreikusten da Estatuko legerian, eta 2004ko Dekretuaren araudi-garapenean gauzatzen da; Dekretuaren 24. eta 25. artikulua 50/1999 Legearen araudi-parametroetara egokitzen dira.

b. Profesionaltasun-ziurtagiriak

Profesionaltasun-ziurtagiria egiaztapen ofiziala da eta pertsona batek lanbide-jarduera bat garatzeko beharrezkoak diren lanbide-gaitasunak dituela eta jarduera hori SEPEk eskaintzen duen lanbide-ziurtagiriaren katalogoaren barruan dagoela ziurtatzen du, alegia, lanbide-profil bati aitorten ofiziala ematen dion dokumentua da.

⁸EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA. IRIZPEN ZK.: 14/2004. 123/2003 kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretu-proiektuari buruzkoa. EABJren webgunean eskuragarri. URL helbidea: <http://www.comisionjuridica.euskadi.eus/x84-home/eu/>



Profesionaltasun-ziurtagiriak urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak arautzen ditu, eta lanbide-kualifikazioak ofizialki egiaztatzeko tresna dira lan-administrazioaren eremuan, ez-akademikoan; beraz, trebakuntza ez da arautua, lanbide-heziketa ez bezala, non tituluak arautuak baitira hezkuntza-administrazioak ematen dituen.

Salatzaileak adierazten duen bezala, laguntza-txakurren heziketa alde batera utzita (Kodea: SSCI0112), beste bi profesionaltasun-ziurtagiri daude, eta ekainaren 27ko 548/2014 Errege Dekretuan daude araututa. Horrela, Errege Dekretu horrek arautzen dituen bost ziurtagirietatik, gure interesekoak III. eranskinean («Txakurren oinarrizko trebakuntza eta heziketa» [Kodea: SEAD0412]) eta IV. eranskinean («Txakurren heziketa segurtasuneko eta babes zibileko operazioetarako» [Kodea: SEAD0512]) jaso dira.

Lanbideren webgunearen arabera, Zaunk SL da ikastaro horiek ematen dituen enpresa bakarra EAEn.





Formación

Presentación

Formación ofrecida por Lehiara

Certificado profesionalidad

Qué son

Familias profesionales

Reconocimiento de experiencia

Procesos de acreditación

Actividades

Normativa

Buscar cursos

Centros colaboradores

Información para centros

Publicar cursos externos

Información para empresas

Políticas y laborales

Preguntas frecuentes

Instrucción canina en operaciones de seguridad y protección civil

CÓDIGO: SEAD0512

Documentos descargables:

- Instrucción canina en operaciones de seguridad y protección civil
- Ficha resumen (99)
- Normativa (99)
- Real Decreto 548/2014 (99)
- Módulos y unidades formativas

Itinerarios formativos

Requisitos Cursos Centros Ciclos formativos LOE Ocupaciones

ZAIUK
LERETA(BIZKAIA)

Certificados relacionados

SEAD011
Extinción de incendios y salvamento

Salatzaileak adierazi du Eusko Jaurlaritzak homologatzen dituen ikastaroetako edukiaren zati handi bat berak Lanbideren bidez EAEn bakarrik ematen duen IV. eranskineko profesionaltasun-ziurtagiria emateko ikastaroaren barruan jaso dela. Horrela bada, ondorioztatzen du Eusko Jaurlaritzak legez kanpo ari dela esku sartzen IV. eranskineko ikastaroaren edukian.

Ez gatoz bat gogoeta horrekin; izan ere, ikastaro batean baino gehiagotan eman daiteke gai edo ezagutza bera, izan prestakuntza arautuan izan ez-arautuan, hezkuntza-administratioko titulu ofizialetan edo lan-administratiokoetan, edo, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenaren eremuan homologatzen dituen ikastaroetan, azaldu den bezala. Horietako bakoitzak araudiak aitortzen dion balioa izango du, eta, merkatuaren arabera, harrera hobea ala okerragoa izango dute.

Are gehiago, profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ikastaroetan bere enpresa Zaunk SLk bakarrik ematen dituen ezagutzak beste ikastaro-mota batzuetan ezin eman izateko asmoa baliteke erakunde honek lehia sustatzeko eman dituen beste txosten batzuetako irizpideekin bat ez etortzea; izan ere, txosten horietan



gomendatu izan da ahal den neurrian titulazio edo lanbide-kualifikazio batzuek zerbitzuak emateko duten jarduera-erreserba baztertzea⁹.

Demagun txakurren trebakuntzaren ordeztu matematika edo marketina ditugula hizpide, edo beste edozein ezagutza-arlo, bada, gai horiei loturiko titulu asko dago, ofizialak eta ez-ofizialak, aratuak eta ez, zentro pribatuak edo publikoak, eta bakoitzak araudiak eta merkatuak ematen dioten balioa izango du.

Azaldutakoa dela bide,

IV. ONDORIOA

Lehiaren Euskal Kontseiluak ez du ikusten Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak txakur-trebakuntzaren arloko prestakuntza-ikastaroetan egiten duen homologazioak eragin negatiborik duenik lehia askean.

⁹ LEAren webgunea. Kirol Lanbideei buruzko Legeari buruzko txostena. Honako url helbide honetan eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/informe%20deporte%20definitivo%20eu%202017-02-2.pdf (azken kontsulta 2018ko uztailearen 2an egin da).